Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Jesus Gorostola Iribar

Zumaia, Gipuzkoa
(1929-2020)



Aurkibidea

Biografia



San Telmo kalean jaio zen. Ama getariarra zuen; aitaren familia zumaiarra zen, eta aitona Zumaiako portuko praktikoa izan zen. Hamalau urterekin hasi zen lanean Balenciaga ontziolan eta hantxe jubilatu zen. Bizi guztia itsasoan egin du, batez ere txibitan, baina baita kabratan eta abar ere. Elkarrizketan Akelino Osa laguna ere azaltzen da.

Zintak

ZUM-024

- **Proiektua**: Zumaiako hizkera
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Data**: 2008-02-06
- **Iraupena**: 20 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Transkribatzailea(k)**: Zabaleta Zuloaga, Miren - Elortza, Kepa

ZUM-027

- **Proiektua**: Zumaiako toponimia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Azkue Ibarbia, Imanol
- **Data**: 2005-01-01
- **Iraupena**: 40 min
- **Euskarria**: CD
- **Emalea**: Azkue Ibarbia, Xabier

Pasarteak

1. San Telmo kalea; bizimodua ateratzeko denetarik egin behar

- **Erref**: ZUM-024/002
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:01:20. **Bukatu**: 00:03:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak

Laburpena:
Jesus Zumaian jaio zen San Telmo kalean. Aita zumaiarra zuen eta ama getariarra. San Telmo kalea nolakoa zen lehenago. Etxe azpietan abereak izaten ziren, txerriak, oiloak eta abar. Bizimodua ateratzeko lehen etxean baratzea izaten zuten eta gero itsasoan ere lan egin behar izaten zen eta baita lantegian ere. Handik eta hemendik ateratzen zen bizitzeko lain.

Transkripzioa
- Orduan, oin, Jesus, zu nun jaiotakua zea, ba?
- (Jesus) Ni Zumaian, calle San Telmon.
- San Telmo kalian?
- (Jesus) Bai.
- Eta familiya bertakua? Aita, o?
- (Jesus) Bai, aitta zumaiarra ta ama getaiarra.
- Eta aitta San Telmo kalekua’re bai?
- (Jesus) Bai, bai.
- Eta nolakua zan San Telmo kalia? Nola gogoratzen dezu? Asko aldatu al da?
- (Jesus) San Telmo kalia, bai, asko aldau da, beno! Asko, asko. Leheno dana itxe… zeak, txarrixak eta hazten zianak, dana txarrixa-ta, itxietan oilluak eta dana. Gure itxian, aldamenian, ertz hartan oilluak-eta, txarrixak-

eta…
- Bertan, etxian, ezkatzian?
- (Jesus) Behian, behian. Bai.
- Eta hori etxe guztietan?
- (Jesus) Danetan ez, baiña asko. Hamen, Calle Marin-ta askotan. Calle San Telmo’re…Ixa arrantzale zeoze-zeoze zekela danak.
- (Akelino) Bizimoua orduan hala huan. Eiten zan itxeako konparaziyo batea patata, baba dala, ta dana iten zan. Taillarrian batzuek iten zuen lana ta beste batzuk, berriz, barkuak deskargatzen-ta igual. Ta negoako jartzen zan artua ta babaa ta patata ta hoiek izaten zian.
- Orduan danetik pixkat egiten zan, ez?
- (Jesus) Bai, danetik, bai, gehixena.
- Baratzeko kontua, itsasokua ta… Itsasua, baratza ta, taillarra ta…
- (Jesus) Gure itxian ez zan ezer… Amamenian iten zan, baiña geuk… Aitta zeatu zanian, ez zan ezer’e iten.

2. Aita "praktikoa" zen, itsaontziei sarrera ematen ziena

- **Erref**: ZUM-024/003
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:03:00. **Bukatu**: 00:05:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantza-orokorra
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Kofradia

Laburpena:
Jesusen aita "praktikoa" zen, itsasontziei sarrera ematen ziena: Carlos Gorostola Zubia. Itsasontzian Cadizeraino joaten ziren kargarekin; porlana eraman eta gatza ekartzen zuten. Zenbaitetan haize handia zegoenean itsasontziek sartzeko arazoak izaten zituzten. Orduan, bere aitona atoian (ontzi mota bat) barkuraino joan eta berak sartzen zuen itsasontzia portura.

Transkripzioa
- (Akelino) Honek aittaitta hori zun, praktikua.
- (Jesus) Barkua sartu ta atea iten zuna, aittaitta, ta osaba’re bai.
- Eta nola zun izena aittak? Izena nola zun?
- (Jesus) Fortunato. Aitta ibiltzen zan, baiña aitta mekanikua zan, e! Aittaittak. Aitta zan Carlos. Carlos Gorostola Zubia.
- Eta praktikua zan.
- (Jesus) Praktikua zan.
- Eta hori zer zan, karreran bat-o ikasi behar zan praktikua izateko?
- (Akelino) Ez, hori izaten zan, […] egun bat o, konparaziyo batea, ba, kargo hori hartzen zun, responsablia zalako barkuai sarrera emateko-ta.
- Baiña, jakin in beharko zan, ez?
- (Jesus) Bai! Gure aittaitta juten zan Cadizeaiño amakin, bere andriakin.
- Ikastea?
- (Jesus) Ez, ez, kargakin. Ta geo etorri. Ta geo zeatu zanian, praktiko in zun hamen, baiña lehenbizi Cadizeaiño. Hara jun, hamendikan porlana eraman ta handik gatza ekarri iten zuen. Ta igual, ba, esaten zun beak, igual etorri hamen Zumai gaiñeaiño, ta haize kontrakua, [erriko] haizia hartu, ta anda demontre atzea berriz, [erria] belak eta hala, trabes. Atzea berriz etortzen zanian, ba, […] zuenian, barroa. Geo hamen hartu, hamengo atoia esaten zixoen, atoira. Zan, ba, triñeua bezelako bat, arraunian danak, "raka-raka,

raka-raka". Amarrauta soka, ta hura ekartzen.
- (Akelino) Ta atoiai, han juten zianai, pexta bat eo [errial ...] bat eo, ez dakit zenbat diru, asko ez huan izango, ematen zikuan.
- Atoia zan gabarra moduko bat, o?
- (Jesus) Arraunian iteko. Triñaua bezelako bat.
- (Akelino) Txalupa haundi bat, fuerte bat.
- Eta bere lana praktiko bezela ze izaten zan hamen?
- (Jesus) Ba, barkuak sartu barroa. Ertentzen zun zea batekin, batela zeken orduan, arraunian ertentzen zuen, ta barkoa sartu ta beak barroa ekarri hura.
- Bea batelian jun ta...
- (Akelino) Geo beak ekarri, hori beak ekartzen zun puertua txalupa.
- (Jesus) Tiraka-tiraka arraunian, tiraka-tiraka.
- Eta hau izango zan oain dala ya larogei-ehun o ehun urte?
- (Jesus) Ehun urte.

3. Lehengo itsasontziak

- **Erref**: ZUM-024/004
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:05:20. **Bukatu**: 00:06:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Ontzi-motak

Laburpena:
Lehenagoko itsasontziak nolakoak ziren. Ordua kalkulatzeko nola egiten zuten.

Transkripzioa
- Eta barkuak nolakuak zian orduan?
- (Akelino) Orduan hirurogei bat o hemen [...] fotografiyan ta azaltzen dia, ba, balandruak bi belakuak? Hirurogei bat o honela, o larogei bat o honelako barkuak.
- Eta hoiekin juten zan Cadiza-ta?
- (Jesus) Cadiza bai.
- Belako...
- (Jesus) Belako zean. Ta beak esaten zun ze ordutan ta, jarri eskuan [...], "ba! Seirak aldian ditxuk oain, seirak aldian", ta halaxen. Ez seirak eta hamar, ez seirak eta hogei, seirak aldia o, gutxi gorabehera.
- Bai, orduan dana izango zan gutxi gorabeherakua, ez?
- (Jesus) Geo, konpas txikixak eta hasi zinian-ta ta, jode! Konpasa, txiki-txikixakin.

4. Praktikoa eta talaieroa; faroaren funtzioa

- **Erref**: ZUM-024/006
- **Iraupena**: 0:03:20. **Hasi**: 00:09:30. **Bukatu**: 00:12:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Faroa
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Kofradia

Laburpena:
Aitona urte askoan izan zen Zumaiako praktikoa. Portu guztietan egoten ziren praktikoa eta talaieroa. Talaieroaren lana itsasontziei abisua ematea izaten zen. Itsasontziarekin portura sartzerakoan hartuta zeukaten gutxi gorabehera noiz eta nola komeni zen sartzea. Faroaren funtzioa: argi seinalearen arabera zein herritan zauden jakin dezakezu gauez. Kosteroak kostarik kosta joaten ziren seinaleen arabera gidatuz.

Transkripzioa
- Eta aittaitta, orduan, praktikua zan.
- (Jesus) Bai.
- Eta urte askuan ibili zan hamen praktiko?
- (Jesus) Urte batzuk in zitun, bai.
- Eta hori, praktikua, ze izaten zan, portu guztitan izaten zan praktikua?
- (Jesus) Danetan.
- Getaixan ta…
- (Jesus) Danian, danian. Ta talaixero’re bai.
- (Akelino) Talaierua izaten zan, itsaso txarra zeonian-ta, han puntan nola dao, Paolen badao han txabola txiki bat o, han eoten da talaierua bandera batekin. Ta honela hau, ta eoteko esaten ziyon barkuai.
- (Jesus) Seiñalia jarrita ta…
- (Akelino) Ikusten zunian bazatorrela, itsaso haundiya bazatorrela, honela. Ta ya hura lagatzen zunian, orduan ematen ziyon entrada.
- Hori, baiña, kargako-ta barkuentzat, ez?
- (Akelino) Baita guri’re! Txalupa txikiyai’re!
- (Jesus) Bai, bai!
- (Akelino) Guri’re bai, txalupa txikiyai’re. Han zai-zai eoten giñan, ta jenealian, zazpi olatu izaten dia txarra danian, zazpi etortzen dia. Zazpigarrenguan ya barroa. […] beste tanda etorri baiño leheno, benga, jota…
- (Jesus) Geo, geu bakarrik bagiñan, [Isustar] esaten zixeun, saliente bat, han eoten giñan. Ta han ertentzen zunian, han ikusten zanian zea, barealdixa, abante, barroa. Osea, bazeben bere…
- Bai, ez? Ya hartuta.
- (Akelino) Bi zian: bestia Malparaje, hemen, Itzurungo saliente hortan, hor zan bestia. Bi hoietan […] baldin bazan, aguanta.
- (Jesus) Aguanta, eon hantxen, hantxen eon.
- Eta nola zun izena honek, banderakin eta ibiltzen zana?
- (Jesus) Talaixerua.
- Eta farua ta?
- (Akelino) Farua aparte zan.
- Faruak laguntzen zun…?
- (Akelino) Ez, faruak ez du ezer’e laguntzen.
- (Jesus) Gabaz.
- (Akelino) Kontraseña bai hori bere argiyakin ta hori, baiña gu ez giñan ibiltzen.
- (Jesus) Zuk honea sartu nahi bazu… Zabez kanpuan, ta hiru milleta ikusten dezu zea, farua. Ta zenbat botzan ditxun, bi motz ta luzia botatzen dunian, Zumaikua da.
- (Akelino) Zumaikua dan o Getaikua dan.
- (Jesus) Bi ta bat, hiru ta bat, ta…
- Eta nola da, Zumaikua nola da?
- (Jesus) Bi ta bat. Bi ta luze bat.Ta geo duda baldin badakazu, ba, tabla (balear): ikusi, ireki ta, "koño! Hemen, bi".
- Eta Getaikoa nola da, badakizue?

- (Akelino) Bai, hark’e ez dakit, hiru o bi... Bi ta bi o... Uste det iguala zuela biyak.
- Eta hori beti horrela da?
- (Akelino) Bai, bai, bai. Hori, liburuetan, seiña hoiek, patroiak danak dazke.
- (Jesus) Kanpoa pixkat ertentzeko, kanpoa erten nahi baldin bazu, estranjeroa, Inglaterra o horrea, beste runbo bat hartu bihar dezu. Baiña hamen, sasoi hortan juten ziñan Gijona, Musela, Galizin, kosta hori dana, kostero horreatik deitzen dixoe. Kostatik juten zian Paola, zenbat ematen xun jakiñez: "dan-dan-dan! Matxitxakon gatxibez!" "Dan, dan, dan! Suances!". Kostero horreatik deitzen zixoen, "costeando" ibiltzen zialako.
- Beti kosta ikusten.
- (Jesus) Bai, ba.

5. 14 urterekin astilerora lanera

- **Erref**: ZUM-024/007
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:12:50. **Bukatu**: 00:13:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Ontzigintza

Laburpena:
Jesus 14 urterekin Balenciaga astileroan lanean hasi eta bertan egin zuen bizi osoa. Orduan 14 urterekin hasten zen jendea lanean normalean, baina gazteago ere egiten zituzten lantxoak.

Transkripzioa
- Eta gero lan in zendun astilleruan?
- (Jesus) Bai.
- Urte asko?
- (Jesus) Bai. Hantxen hasi nitxan ta hantxen bukatu’re.
- Zenbat urtekin hasiko ziñan? Gazte-gazte hasi ziñan? Hamalau urte?
- (Jesus) Bai.
- Zu’re bai?
- (Akelino) Bai, nik’e hamalau urte.
- Bixok?
- (Akelino) Ni gutxi ibili nitzan. Geo ya igeltzeritzan hamabost urtekin o ez dakit ze hasi nitzan.
- Eta zu, ostera, Astilleruan beti?
- (Jesus) Bai.
- Zenbat urtekin hasten zan lanian eta?
- (Jesus) Hamalau urtekin, baiña askotan "Hi, etorriko al haiz hau itea?", ta.
- Gaztio’re bai batzuk, ez?
- (Akelino) Hamahiru ezkeo batzuek hasten zian, pintxe. Itxetikan, izaten da, ba, zeoze jateko baldin bada’re.
- Eta ze astillerotan hasi ziñaten?
- (Jesus) Astilleros Balenciaga.
- (Akelino) Ta jubilatu’re bai!
- (Jesus) Hamen hasi nitxan, ta geo hara.

6. Balenciaga astileroa

- **Erref**: ZUM-024/009

- **Iraupena**: 0:03:05. **Hasi**: 00:15:05. **Bukatu**: 00:18:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Ontzigintza

Laburpena:
Astileroan itsasontziak montatu eta konpontzen lan egiten zuen. Txapa hondatzen zenean, berria jartzen zion berak. Aurretik kalderak egiten ere lan egiten zuen. Balenciaga astileroa San Telmo kalean zegoen. Bertan prestatu eta gero moilara joaten ziren itsasontzia montatzera. Balenciaga astileroaren inguruko kontuak. Herrian non zeuden astilero gehiago.

Transkripzioa
- Zein zan zure lana astilleruan? Ze lan eiten zenun?
- Barkuak montatu’re bai, ta… Barkuak iñ’e bai. Reparazixua gehiena. Bai. Barko zaharrai, ba, txapa kendu ta aldatu berriz’e.
- Txapazko barkuak?
- Hondatzen zanian txapa o bajatzen zakonian zea, loritasuna, hura kendu ta berrixa jarri.
- (Akelino) Baiña hori baiño leheno’re kalderak. Kalderak iten, ta…
- A! Kalderak iten ta, bai!
- (Akelino) Hori ya beranduo […], kalderak iten. Hi kalderak iten ta, guardabarro’re nola da?, kabina hoiek iten, ta.
- Puentiak in ta…
- (X) San Telmo kalian hasi, hasi San Telmo kalian hasi…
- (Akelino) Oin itxiak in ditxuen hortan…
- Han zeon Balenciaga?
- (Jesus) Bai.
- San Telmo kale bertan.
- (Akelino) Oain etxiak nola in ditxue, etxe pillo hori?
- Bai.
- (Akelino) Hortxen.
- Ta handik barkuak bertaraiño sartzen zian?
- (Jesus) Ez, ez.
- Nola sartzen zian?
- (Jesus) Guk hamen prepaatu ta geo juten giñan astilleroa montatzea, oain daon toki horreta, o moilla.
- San Telmo kalian iten zian kalderak-eta…
- (Jesus) Kalderak eta hori in ta…
- (Akelino) Taillarra.
- Eta gero moillan…
- (Jesus) Moillan montatu barkua.
- Eta abanzia nun zeon zu hasi ziñanian astilleruan?
- (Jesus) Hortxe, hortxen bertan. Hortxen bertan, ba, ehun ta… holakon bat urte ingo zitun.
- Ehun urte?
- (Jesus) Astilleruak han.
- (Akelino) Astillerua in zan…
- (Jesus) Gruakiñ, gruakiñ…
- (Akelino) El año cincuenta, buelta hortan […] astilleruana.
- (Jesus) Ta leheno zan zuen ixeko, han astillerua leheno. Hor’e bahitxuan bat, bi, hiru astillero ezautu ixkiu hor bertan. Hamen Amaia horretan bat, bestia…
- (Akelino) Bestia […] itxia daben pare hartan. Hori Segundona. Ta pixkat

behero, Balenciagak euki zuna.
- (Jesus) Ta Egaña…
- Danak hori inguruan.
- (Jesus) Bai, hortxen. Geo, beheruan’e bai ta… Uain astillero alde horretan dao.
- (Akelino) Karmelo Unanuenian ta…
- (Jesus) Baita.
- (Akelino) Ta Castorrenian’e…
- (Jesus) Baita.
- (Akelino) …barkuak iten. Han Castorrenian nola dao erreta… Pabelloi bat baziok, ba, erreta ta eroita? Han barkuak iten […] gitxabek. […] Arritxu o zein zan? Hori han […] huan.
- Karmen.
- (Akelino) Karmen, […]. Ta hura bezala beste bi o […]. Orduan jendiak batei o bestia heldu iten ziyon.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-10

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com